

Galdera

haren/bere/beraren: zein eta noiz erabili behar da?

Erantzuna

Jarraibide hau eman ohi da gramatiketan: *neure, heure, bere...* **posesibo bihurkariak erabiltzen dira izenordain horren erreferente bera agertzen bada aditzean** (nor, nori edo nork morfemetan)

1/ *haren/bere/beraren*:

Eñautek bere azalpena eman du.

Eñaut bere herrian utzi dugu.

Eñauti bere ordenagailua kendu diot.

Izenordainak (*bere*, 3. pertsonakoa) erreferente duen pertsona (Eñaut, 3. pertsona, *hura* alegia) aditzean ageri da (duØ: *nork* = Eñautek; *dugu*: *nor* = Eñaut; *diot*: *nori* = Eñauti; *hots, hark* [nork], *hura* [nor], *hari* [nori]).

Ikasleek beren/euren mahaia *dute*.

Ikasleak beren/euren aulkian eseri behar *dira*.

Ikasleei beren/euren gela *dagokie*.

Izenordainak (*beren/euren*, 3. pertsonakoa pl.) erreferente dituen pertsonak (ikasleak, 3. pertsona pl., *haiek* alegia) aditzean ageri dira (*dute*: *nork* = ikasleek; *dira*: *nor* = ikasleak; *dagokie*: *nori* = ikasleei; *hots, haiek* [nork], *haiek* [nor], *haiei* [nori]).

2/ Baina bi eredu daude, mendebaldekoa, irizpide hori betetzen ez duena, ezkerreko zutabea, eta estilo-liburuek estandar zaindurako hobesten dutena, eskuineko zutabea:

Mendebaldeko moldea

- Ni *bere* herrian izan naiz.

- Ni *beren/euren/beraien* herrian izan nintzen.

- Gu *bere* lankideekin ibili gara.

- Maulen ikusi nuen Otsanda, eta *bere* herrira joan ginen biok.

- Gexan da *bere* izena

- Epailea *bere* delituez lotsaturik zegoen.

Estilo liburuek lehenetsitako

- Ni haren herrian izan naiz.

- Ni haien herrian izan nintzen.

- Gu haren lankideekin ibili gara.

- Maulen ikusi nuen Otsanda, eta haren (edo beraren) herrira joan ginen biok.

- Gexan da haren izena (edo Gexan du [bere] izena).

- Epailea haren [beste norbaiten]] delituez lotsaturik zegoen.

3/ Euskaltzaindiak ez du arautu *haren/bere, haien/beren* gaia. Bestalde, euskaraz **gutxiagotan erabiltzen dira posesiboak** gure inguruko hizkuntzetan baino, eta maizenik ez da behar horien ordainik:

(*?bere*) giltzak hartu, eta...

Ardoa (*?bere*) neurrian edanez gero...

Triangelu aldeberdin batek berdinak ditu (*?bere*) alde eta angelu guztiak.

Maiz erabiltzen dira *bera* izenordain indartua *hura* izenordain arruntaren orde, eta *bere* posesibo bihurkaria *haren* posesibo arruntaren orde. Batik bat mendebaldeko euskalkietan gertatu da neutralizazioa *bere* formaren alde (*haren/bere; haien/beren*):

bere herrira joan nintzen [*haren*]. / *bere* ordenagailua ekarri zuten [*haien*].

Horrelakoetan, batzuetan ezin da jakin, *bere* horrek zein pertsona duen erreferente:

Garazik Enekorri deitu zion, eta *bere* herrira joan zen (Nora? Garaziren herrira [*bere* herrira], ala Enekoren herrira [*haren* herrira]?).

Hirugarren pertsonako posesiboetan, hiru molde bereizten dira (askok ez dute betetzen, eta *bere* erabiltzen dute beti):

haren (*haien*, pl.) / ***beraren*** indartua (*beren/euren*, pl.) / ***bere*** bihurkaria (*beren/euren*, pl.)

Maddi *haren* herrira joan da [lehen aipatutako norbaiten herrira, alegia].

Maddi *beraren* herrira joan da [lehen aipatutako norbaiten herrira, halaber, baina modu indartuan].

Maddi *bere* herrira joan da [Maddiren herrira, alegia].

?Beraien, kideko formak eta horietatik eratorritakoak (*?beraiekin, ?beraiantzat, ?beraietan/?beraiengan...*) oso tradizio laburrekoak dira literaturan eta ahozkoan. **Ohiko formak hobetsi behar dira**: *haien* soila, *beren* bihurkaria eta indartua, eta horietatik eratorritakoak (*haiekin, haiantzat, haietan/haiengan...*; *berekin, berentzat, beretan/berengan...*).

4/ Gehiago jakiteko:

[EHU - *haren/bere* \(PDF\)](#)

[IVAP - *haren/bere/beraren* \(PDF\)](#)

[IRALE kontsulta-zerbitzua - *Testuak, zalantzak eta beste, nire/neure* \(63. or.\) \(PDF\)](#)

[IRALE kontsulta-zerbitzua - *haren/bere*](#)

* Zeinuak (izartxoak) adierazten du ez dela zuzena ondoren idatzita dagoena.

? Zeinuak (galdera-marka) adierazten du zalantzazkoa dela ondoren idatzita dagoena.